NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia Iruña, 2012ko apirilaren 11 34. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, baliabiderik gabeko zordun hipotekarioak babesteko tributu-neurriei buruzkoa (3. or.).

—Foru Lege proiektua, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 174. artikulua aldatzekoa (5. or.).

—Foru Lege proiektua, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (7. or.).

—Foru Lege proiektua, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzeari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (7. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, aurrezki kutxei buruzkoa. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kalitatezko enplegu egonkorra sortzeko mekanismo berriak indartzera eta artikulatzera. Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkeztu du (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da behar diren bitartekoak jar ditzan abeltzaintza kudeaketaren esparruan goi mailako heziketako eskaintza bat ahalbidetzeko. Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkeztu du (10. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da beste aukera batzuk azter ditzan sukaldezerbitzua hotzezko produkzio sistemaren bidez emateko. Nafarroa Bai, Bildu-Nafarroa eta Izquierda-Ezkerra parlamentu taldeek aurkeztu dute (11. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alokairuko etxebizitzei buruzko plan orokor bat aurkez dezan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (12. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da udako hilabeteetan "Gazteluen eta Gotorlekuen Ibilbidea" programari euts diezaion. Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztu du (13. or.).
—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak errefusatzen du Nafarroako Gobernuko eta Iruñeko Udaleko arduradun politikoek Nafarroako Kutxaren fusionatzeko eta banku bihurtzeko prozesuan izan duten jokabidea, haren fundatze-printzipioak guztiz abandonatu dituztelako. Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu du (14. or.).
—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez gaitzetsi eta arbuiatzen baitira iragan martxoaren 29ko greba egunean egindako txikizioak. Eledunen Batzarrak onetsia (15. or.).
—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez herritarren jarreraren balorazio positiboa egiten baita, modu masibo eta baketsuan egin zutelako bat greba orokorrarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (15. or.).
—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak nabarmentzen baitu greba orokorrak jarraipen historikoa izan zuela Nafarroan. Eledunen Batzarrak onetsia (15. or.).

F SAILA:
Galderak:
—Galdera, Nafarroako Gobernuaren Madrilgo Ordezkaritzaren aurrekontuari buruzkoa, Patxi Leuza García jaunak egina (16. or.).
—Galdera, Nafarroako Liburutegi Nagusiko haurren ataleko jendaurreko laguntza Sedenaren bitartez azpikontratatutako kanpoko langileen bidez emateari buruzkoa, Patxi Leuza García jaunak egina (17. or.).
—Galdera, Nafarroako Orkestra Sinfonikoarekiko hitzarmenari buruzkoa, Patxi Leuza García jaunak egina (17. or.).
—Galdera, Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentuak kudeatzen dituen haur eskolei buruzkoa, Aitziber Sarasola Jaca andreak egina (18. or.).
—Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak aintzat hartuko duen Nafarroako Parlamentuaren erabakia eta Tutera eta Iruña lotzen dituen ospitalearteko autobus-zerbitzuari eutsiko dion, Marisa De Simón Caballero andreak egina (19. or.).
—Galdera, Pirinioetako Lan Batzordearen lehendakaritza daukan bitartean Nafarroako Gobernuak garatuko duen lan programari buruzkoa, Amaya Zarranz Errea andreak egina (20. or.).

G SAILA:
Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:
—Lan-taldea, aztertzeko Nafarroan 1936ko biktimei ematen zaien arretaren egungo egoera, eta biktima horiei laguntza, ordaina, oroimena eta justizia emateko neurriak bideratzeko. Osaerari eta eratzeari buruzko arauak (21. or.).
—Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrari izateko lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketa bidez betetzekoa. Lanpostuak betekizun gisa du euskaraz jakitea (22. or.).
—Deialdia, Nafarroako Comptos Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu huts bat, barneko igoera txanda murriztuan, oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa. Behin betiko izendapena (27. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, baliabiderik gabeko zordun hipotekarioak babesteko tributu-neurriei buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko apirilaren 2an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikuluak aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2012ko martxoaren 26an hartutako erabakiaren bidez, baliabiderik gabeko zordun hipotekarioak babesteko tributu-neurriei buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Kontuan izanik proiektu honetako 3. artikuluaren edukia onesteko gehiengo osoa behar dela, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzea proposatzen duelako, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legeko 58. eta 259. artikuluetan eta Erregelamenduko 152.3 artikuluan xedatutakoarekin bat, bidezkoa da igorritako proiektutik bereiztea Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legeari dagokion edukia, eta beste proiektu baten gisara izapidetzea, Erregelamenduko 153. artikuluan aurreikusitako prozedurari jarraituz.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 127. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Baliabiderik gabeko zordun hipotekarioak babesteko tributu-neurriei buruzko Foru Lege proiektua bi proiektutan bereiztea. Bat izanen da baliabiderik gabeko zordun hipotekarioak babesteko tributu-neurriei buruzko Foru Lege proiektua, eta bestea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 174. artikulua aldatzeko Foru Lege proiektua.

2. Baliabiderik gabeko zordun hipotekarioak babesteko tributu-neurriei Foru Lege proiektuaren izapidetzea zuzenekoa eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia Osoko Bilkuraren esku jartzea.

3. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

4. Aipaturiko proiektua Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2012ko apirilaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

Foru Lege proiektua, baliabiderik gabeko zordun hipotekarioak babesteko tributu-neurriei buruzkoa

Baliabiderik gabeko zordun hipotekarioak babesteko presako neurriei buruzko martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege-dekretuak neurriak ezartzen ditu hipoteken betearazpenerako prozedurak malgutzeko, gizartean bazterturik gelditzeko arriskuan dauden pertsonen kasuan etxebizitzaren utzarazpenak dakartzan arazoak arindu nahian. Errege lege-dekretu horretan, neurri horiek aplikatuko zaizkien zordunen gizarte-bazterketaren muga non den zehazten da, berandutza-korrituak mugatzen dira eta epaitegitik kanpoko betearazpenerako prozedurak aldatzen dira. Neurri horiekin batera, tributu arloko beste batzuk ere ezartzen dira, etxebizitzaren eskualdatzaileari kalterik ez eragiteko xedeaz.

Baliabiderik gabeko zordun hipotekarioak babesteko tributu-neurriei buruzko Foru Lege proiektuak Nafarroako Foru Komunitaterako egokitu ditu estatuko zerga arloko aipatutako neurriak. Lege proiektu hau hiru artikuluk eta azken xedapen batek osatzen dute.

Lehendabiziko artikuluak xedapen gehigarri bat eransten dio Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginari, berrogeita hirugarrena. Bertan xedatzen denez, Baliabiderik gabeko zordun hipotekarioak

babesteko presako neurriei buruzko martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege-dekretuaren 2. artikuluaren aplikazio esparruan sartzen diren zordunek etxebizitza ordainean ematen dutenean, aukera hori aurreikusita baitago errege lege-dekretu horretan, emate horretatik sortzen den ondare-gehikuntza zerga ordaintzetik salbuetsirik egonen da.

Errege lege-dekretu horretan arautzen den ordainean emateak berarekin dakar etxebizitza finantza-entitateari eskualdatzea. Eskualdaketa hori eskualdatzailearen ondarearen osaketaren aldaketa da, eta ondare-gehikuntza edo murrizketa ekar dezake pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari dagokionez. Tributu arauak salbuetsi egiten du gerta daitekeen ondare gehikuntza, ez ordea murrizketa.

Bigarren artikuluak beste zenbaki bat eransten dio Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Testu Bateginaren 35.I.B) artikuluari, hogeita seigarrena hain zuzen, eta bertan ezartzen du Baliabiderik gabeko zordun hipotekarioak babesteko presako neurriei buruzko martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege-dekretuaren babesean mailegu eta kreditu hipotekarioen kontratuetan egindako nobazioak formalizatzeko eskritura publikoak salbuetsirik egonen direla egintza juridiko dokumentatuen modalitateko notario-agirien mailakako kuotatik. Martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege-dekretu horrek hartutako neurrien ondorioz, nobazioak gertatuko dira mailegu eta kreditu hipotekarioen kontratuetan, zeinak egintza juridiko dokumentatuen modalitateko notario-agirien mailakako kuotaren menpe egonen baitira. Horren aurrean, horiek salbuestea ezartzen du aginduak.

Hirugarren artikuluak ahalmena ematen dio Nafarroako Zerga Ogasunari errentarik gabeko bere konturako langileari dagokion ziurtagiria egiteko, bai eta azken zerga-ekitaldiko errenta ziurtagiria ere. Zordunak finantza-entitate hartzekodunaren aurrean frogatu ahal izan dezan bazterketaren mugan dagoela, hau da, Baliabiderik gabeko zordun hipotekarioak babesteko presako neurriei buruzko martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege-Dekretuaren 3.1 artikuluan aipatzen diren zirkunstantzietan dagoela, tributu arloko Administrazioak kasu batzuetan agiriak egin beharko ditu. Bada, Nafarroako Foru Komunitateari Estatuarekin izenpeturik duen Hitzarmen Ekonomikoaren esparruan dagozkion eskumenak errespetatuz, Nafarroako Zerga Ogasuna izanen da ziurtagiri horiek eginen dituena.

Foru lege honekin batera, eta beronen osagarri, Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 174. artikulua aldatzeko Foru Legea tramitatu da, zeinak, artikulu horri 2. idatz-zati bat gehituta, aldaketa bat egin baitu hirilurren balio igoeraren gaineko zergan; aldaketa horrekin, zordunek etxebizitza ordainean ematean egiten dituzten eskualdaketetan, ondasun higiezina eskuratzen duen finantza-entitateak ezin izanen du, zergadunaren ordezko gisa, kargaren zenbatekoa zergadunari jasanarazi.

Azken xedapen bakarra legeak indarra hartzeko egunari buruzkoa da; legeak, hain zuzen ere, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra. Argi uzten da, hala ere, legean aurreikusitako ondorioak, arestian aipatu baitira, kontuan hartu beharko direla.

1. artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginari xedapen gehigarri bat eranstea, berrogeita hirugarrena. Testu Bategina ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginari xedapen gehigarri bat erantsi zaio, berrogeita hirugarrena hain zuzen, zeinak 2012ko martxoaren 11tik aurrera gertatzen diren ondare-gehikuntzetan izanen baititu ondorioak. Hona testua:

"Berrogeita hirugarren xedapen gehigarria. Etxebizitza ordainean ematea. Ondare-gehikuntza salbuestea.

Baliabiderik gabeko zordun hipotekarioak babesteko presako neurriei buruzko martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege-dekretuaren 2. artikuluaren aplikazio esparruan sartzen diren zordunek etxebizitza ordainean ematen dutenean, aukera hori aurreikusita baitago errege lege-dekretu horretako eranskineko 3. idatz-zatian, emate horretatik sortzen den ondare-gehikuntza zerga ordaintzetik salbuetsirik egonen da."

2. artikulua. Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Testu Bateginaren 35.I.B) artikuluari beste zenbaki bat eranstea, hogeita seigarrena. Testu bategina apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen.

Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Testu Bateginaren 35.I.B artikuluari –testu bategin hori apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen– beste zenbaki bat erantsi zaio, zeinak 2012ko martxoaren 11tik aurrera gertatzen diren zergapeko egintzetan izanen baititu ondorioak. Hona testua:

"26. Baliabiderik gabeko zordun hipotekarioak babesteko presako neurriei buruzko martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege-dekretuaren babesean mailegu eta kreditu hipotekarioen kontratuetan egindako nobazioak formalizatzeko eskritura publikoak salbuetsirik egonen dira egintza juridiko dokumentatuen modalitateko notario-agirien mailakako kuotatik."

3. artikulua. Ziurtagiriak egitea.

Nafarroako Foru Komunitateari Estatuarekin izenpeturik duen Hitzarmen Ekonomikoaren esparruan dagozkion eskumenak erabilita, Nafarroako Zerga Ogasunak eginen ditu errentarik gabeko bere konturako langileari dagokion ziurtagiria eta azken zerga-ekitaldiko errenta ziurtagiria ere, zordunak entitate hartzekodunaren aurrean frogatu ahal izan dezan bazterketaren mugan dagoela; hau da, Baliabiderik gabeko zordun hipotekarioak babesteko presako neurriei buruzko martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege-Dekretuaren 3.1 artikuluan aipatzen diren zirkunstantzietan dagoela.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, legean berean aurreikusitako ondorioekin.

Foru Lege proiektua, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 174. artikulua aldatzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko apirilaren 2an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikuluak aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2012ko martxoaren 26an hartutako erabakiaren bidez, baliabiderik gabeko zordun hipotekarioak babesteko tributu-neurriei buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Kontuan izanik proiektu honetako 3. artikuluaren edukia onesteko gehiengo osoa behar dela, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzea proposatzen duelako, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legeko 58. eta 259. artikuluetan eta Erregelamenduko 152.3 artikuluan xedatutakoarekin bat, bidezkoa da igorritako proiektutik bereiztea Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legeari dagokion edukia, eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 174. artikulua aldatzeko Foru Lege proiektuaren gisara izapidetzea.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 127., 152. 153. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Baliabiderik gabeko zordun hipotekarioak babesteko tributu-neurriei buruzko Foru Lege proiektua bi proiektutan bereiztea. Bat izanen da baliabiderik gabeko zordun hipotekarioak babesteko tributu-neurriei buruzko Foru Lege proiektua, eta bestea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 174. artikulua aldatzeko Foru Lege proiektua.

2. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 174. artikulua aldatzeko Foru Lege proiektuaren izapidetzea zuzenekoa eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia Osoko Bilkuraren esku jartzea, Erregelamenduko 152. eta 153. artikuluetan ezarritako berezitasunak kontuan hartuta.

3. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

4. Aipaturiko proiektua Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2012ko apirilaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 174. artikulua aldatzeko Foru Lege proiektua

Baliabiderik gabeko zordun hipotekarioak babesteko tributu-neurriei buruzko Foru Legeak Nafarroako Foru Komunitatera egokitzen ditu estatuan ezarritako neurri fiskalak; hain zuzen ere, Baliabiderik gabeko zordun hipotekarioak babesteko presako neurriei buruzko martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege-dekretuan ezarritakoak. Etxebizitzaren eskualdatzaileari kalterik ez eragiteko xedeaz ezarritako neurri horien osagarri, aldatu beharra dago Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 174. artikulua. Lege horrek gehiengo osoa behar duenez, hala ezartzen baitute lege bereko 58. artikuluak eta Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 259. artikuluak, foru lege honen bidez onesten da aldaketa.

Hirugarren artikuluak beste idatz-zati bat eransten dio Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 174. artikuluari, bigarrena, hirilurren balio igoeraren gaineko zergari buruz. Foru Komunitatean, estatuan ez bezala, martxoaren 10eko 2/1995 Foru Lege horren 174.1 artikuluak arau orokor gisa ezartzen du lurren kostu bidezko eskualdaketetan eskuratzailea zergadunaren ordezkoa izanen dela, baina eskualdatzaileari jasanarazi ahalko diola, betiere, kargaren zenbatekoa. Beraz, foru araudian, lurraren kostu bidezko eskualdatzailea bada ere hirilurren balio igoeraren gaineko zergaren subjektu pasibo zergaduna, eskuratzailea zergadunaren ordezkoa izanen da, eta kargaren zenbatekoa jasanarazi ahalko dio eskualdatzaileari. Gehitutako lerroaldeak ezartzen duenez, zordunek etxebizitza ordainean ematen badute, martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege-dekretuak ematen duen aukera baliatuta, ondasun higiezina eskuratzen duen finantza-entitateak, eskualdaketa horretan zergadunaren ordezkoa bada ere, ezin izanen dio kargaren zenbatekoa jasanarazi zergadunari.

Azken xedapen bakarra legeak indarra hartzeko egunari buruzkoa da; legeak, hain zuzen ere, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra. Argi uzten da, hala ere, legean aurreikusitako ondorioak kontuan hartu beharko direla.

Artikulu bakarra. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 174. artikuluari beste idatz-zati bat eranstea, bigarrena.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 174. artikuluari beste idatz-zati bat erantsi zaio, bigarrena hain zuzen, zeinak 2012ko martxoaren 11tik aurrera gertatzen diren zergapeko egintzetan izanen baititu ondorioak. Hona testua:

"2. Baliabiderik gabeko zordun hipotekarioak babesteko presako neurriei buruzko martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege-Dekretuaren 2. artikuluaren aplikazio esparruan sarturik dauden zordunek arau horren beraren eranskinaren 3. idatz-zatian aurreikusitakoari jarraikiz etxebizitza ordainean ematean egiten dituzten eskualdaketetan, ondasun higiezina eskuratzen duen finantza-entitateak, zergadunaren ordezkoa bada ere, ezin izanen dio kargaren zenbatekoa jasanarazi zergadunari."

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, legean berean aurreikusitako ondorioekin.

Foru Lege proiektua, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzkoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko apirilaren 2an egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2012ko apirilaren 27ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru lege proiektua 2012ko martxoaren 23ko 30. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2012ko apirilaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

Foru Lege proiektua, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzeari buruzkoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko apirilaren 2an egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzeari buruzko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2012ko apirilaren 27ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru lege proposamena 2012ko martxoaren 28ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2012ko apirilaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, aurrezki kutxei buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko apirilaren 2an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikuluak aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du aurrezki kutxei buruzko Foru Lege proposamena.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea aurrezki kutxei buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2012ko apirilaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

Aurrezki Kutxei buruzko Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

Ageri-ageriko urraketa.

ARTIKULUAK

Artikulu bakarra. Indargabetu egiten da Nafarroako Aurrezki Kutxetako Zuzendaritza Organoei buruzko apirilaren 21eko 7/1987 Foru Legea.

Xedapen iragankorra. Nafarroako Gobernuari agintzen zaio Foruaren Hobekuntza aldatzeko ekimena susta dezan, 56. artikuluko f) letra indargabetze aldera, zeinaren bidez Nafarroari aurrezki kutxen arloko eskumen osoa ematen baitzaio, arlo horretako hitzarmenen araubide berezia ezertan ere galarazi gabe.

Azken xedapen bakarra

Foru lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kalitatezko enplegu egonkorra sortzeko mekanismo berriak indartzera eta artikulatzera.

BIKENDI BAREA AIESTARAN JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko apirilaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita kalitatezko enplegu egonkorra sortzeko mekanismo berriak indartzera eta artikulatzera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko apirilaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

MOZIOAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaranek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, 2012ko martxoaren 22ko jabelduraren ondoriozkoa, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Nafarroako Parlamentuak 2012ko martxoaren 22an egindako Osoko Bilkura arruntean gure taldeak Gobernuari egindako jabeldura bat eztabaidatu zen gai zerrendako hamahirugarren puntuan, Nafarroan enplegu egonkorra eta kalitatezkoa sortze aldera beharrezkoak diren baldintzak sustatzeko politika orokorrei buruzkoa.

Jabeldura hartan, talde honek adierazi zuen Nafarroako Gobernuak enplegua sortze aldera darabiltzan politikak sustatu eta goitik behera aldatu beharra dagoela. Orobat adierazi genuen inplikatutako sektore guztietara –politikoetara, sindikaletara eta sozialetara– zabaldu beharra dagoela arazoaren konponbidearen protagonismoa.

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du tresna berriak susta eta taxutu ditzan, kalitatezko enplegu egonkorra sortzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gai honetan inplikatutako eragile guzti-guztiekin bat egin dezan, inolako bazterketarik gabe.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du eragile eta erakunde guztien arteko parte-hartze eta adostasun esparru berri bat sor dezan, zeinetan esklusibotasunez garatuko baitira enplegua sortzeko politikak eta langabetuek enplegua eskuratzeko eta haiek babesteko politikak.

Iruñean, 2012ko martxoaren 23an

Foru parlamentaria: Bikendi Barea Aiestaran

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da behar diren bitartekoak jar ditzan abeltzaintza kudeaketaren esparruan goi mailako heziketako eskaintza bat ahalbidetzeko.

BIKENDI BAREA AIESTARAN JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko apirilaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita behar diren bitartekoak jar ditzan abeltzaintza kudeaketaren esparruan goi mailako heziketako eskaintza bat ahalbidetzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko apirilaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaran jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Batzordeak lan bilera egin zuen iragan martxoaren 20an. Lan bileran, agerraldia egin zuten Iruñeko "Agroforestal" zentro integratuko zuzendaritzako kideek, zentro horretan ehiza zaindarien gainean jasotzen duten prestakuntzari buruz informatzeko.

Lan bileran, zuzendaritzako kideek azaldu zuten zer prestakuntza eskaintzen den zentroan, eta bertan ginen parlamentu-talde guztiok ezagutu ahal izan genuen zuzendaritza kezkatuta dagoela abeltzaintza arloko goi mailako prestakuntzarik ez dagoelako; areago, kontuan hartzen bada sektore horrek nekazaritza- eta oihan-jardueraren ehuneko 60 baino gehiago ordezkatzen duela.

Gauzak horrela, zentro horretako zuzendaritzak azaldu zuen proiektua taxuturik dutela, eta proiektua abian jartzeko soilik falta dela Hezkuntza Ministerioak zentro horrri hezkuntza-eskaintza esleitzeko erabakia hartzea.

Horrenbestez, konbentzituta gaudenez prestakuntza dela arlo horretako nahiz gainontzeko arloetako profesionalek ezaugarri gisa izan beharreko balio erantsia, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak ondoko erabaki proposamena aurkezten du:

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du behar diren tresna guztiak jar ditzan abeltzaintza-kudeaketaren esparruko goi mailako prestakuntza eskaini ahal izateko 2013an, Abeltzaintzako eta Albaitaritzako Goi Mailako Zikloaren eskaintza eginez.

Iruñean, 2012ko martxoaren 23an

Foru parlamentaria: Bikendi Barea Aiestaran

Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da beste aukera batzuk azter ditzan sukalde-zerbitzua hotzezko produkzio sistemaren bidez emateko.

NAFARROA BAI, BILDU-NAFARROA ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko apirilaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai, Bildu-Nafarroa eta Izquierda-Ezkerra parlamentu taldeek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Osasun Departamentua premiatzen baita beste aukera batzuk azter ditzan sukalde-zerbitzua hotzezko produkzio sistemaren bidez emateko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko apirilaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Nafarroako Gobernuak, 2011. urtearen amaieran, Ospitaleguneko sukaldeak pribatizatzea erabaki zuen. Erabaki politiko hori justifikatzeko, Osasun Departamentuak txosten bat egin zuen, 2011ko urriaren 10eko data daukana. Gero, Comptos Ganberak txosten hori aztertu zuen.

Txosteneko ondorioekin bat, NABAI parlamentu-taldeak mozio bat aurkeztu zuen, eta horren eztabaidan, UPN eta PSNren parlamentu-taldeek adierazi zuten haien jarrera finkatu aurretik itxoin behar zela Comptos Ganberako lehendakariak eta Osasuneko kontseilariak agerraldia egin arte, jarrera finkatzeko argudio gehiago edukitze aldera. Horrela, parlamentu-talde guztiek bere egin zituzten aipatu argudioak, eta mozioa erretiratu egin zen.

Martxoaren azken astean eginen direnez agerraldi horiek, behean sinatzen dugun parlamentu-taldeok erabaki proposamen hau egiten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Osasun Departamentua premiatzen du azter ditzan sukalde zerbitzua hotzeko produkzio sistema erabiliz emateko aukera guztiak (bitarteko berekiak, besteren bitartekoak edo formula mistoa), eta balora ditzan, alderdi ekonomikoez gainera, zerbitzuaren kudeaketan eragina izan dezaketen beste alderdi batzuk; esate baterako, alderdi sozialak edo lanak kanpoan kontratatzeak dietaren kostuan ekar dezakeen goranzko desbideratzea, Tuteran gertatu den bezala.

Iruñean, 2012ko martxoaren 26an

Foru parlamentariak: Bakartxo Ruiz Jaso, Marisa De Simón Caballero eta Asun Fernández de Garaialde

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alokairuko etxebizitzei buruzko plan orokor bat aurkez dezan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko apirilaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita alokairuko etxebizitzei buruzko plan orokor bat aurkez dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko apirilaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, alokairuko etxebizitzei buruzko plan orokor bat aurkezteari buruzko ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Azken hamarkada hauetako hazkuntza eta espekulazio neurrigabeak sortu duen egoera larriaren ondorioz, gizarte osoaren aurrean agerian gelditu da garapenari ezin zaiola eutsi, baldin eta metatzean eta espekulazioan eta pertsonen beharrizanei ez erantzutean oinarritzen bada.

Higiezinen sektorea dago –bereziki, bizitokiena– gaur egun bizi dugun krisi larria eragin duten erantzukizunen erdigunean. Etxebizitzaren premia asetzeaz harantzago jabetzak metatzeko obsesioan oinarritutako hazkuntzak ekarri duen ondorio larriena izan da gure gizarteko sektore gero eta gehiagok galdu dutela eskubide hori.

Gaur egun, gehienbat jabetzapeko etxebizitzetan oinarritutako politika sozialek ere ezin diete konponbiderik eman teilatupean bizitzeko eskubidea bermatzeari dagokionez milaka pertsonak bizi dituzten zailtasun larriei. Etxebizitza babestuei buruz gure erkidegoan indarrean dauden politikek ez dute balio, ez sortu diren arazoei ez eta etorkizunean izanen omen bide ditugun erronka berriei ere berehalako erantzun bat emateko.

Beti teorizatu dugu jabetzako etxebizitzaren kultura eta desioa aldatu beharrari buruz. Halere, entitate publikoek garatutako jarduketarik gehiengehienak, baita etxebizitza sozialarekin lotutakoak ere, eredu horretara bideratu dira.

Bizi dugun errealitate gordinaren eta gertatutakotik nahitaez atera behar ditugun irakaspenen aurrean, errotik aldatu behar dira pertsona guztiek etxebizitza bat edukitzeko eskubide unibertsala bermatzera bideratutako etxebizitza arloko politika publikoak.

Alokairuko etxebizitza-politika batetik abiatuta eta ez bestela erantzun dakioke eskubide horri; halako politika bat, izan ere, aukera bat da etorkizunari begira joera aldatzeko eta jabetzako etxebizitzaren aukera alokairukora lerratzeko.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sei hilabeteko gehieneko epean Parlamentu honi aurkez diezaion alokairuko etxebizitzari buruzko plan orokor bat, zeinean epeak, konpromisoak eta jarduketak zehaztuko baitira, gure erkidegoari beharrezkoak diren tresnak eta baliabideak emate aldera eta alokairuko etxebizitza-sistema behin betikoz izan dadin aukera nagusi eta baliozkoa, etxebizitza edukitzeko eskubide unibertsala ziurtatzeari dagokionez.

Iruñean, 2012ko martxoaren 27an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da udako hilabeteetan "Gazteluen eta Gotorlekuen Ibilbidea" programari euts diezaion.

AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko apirilaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita udako hilabeteetan "Gazteluen eta Gotorlekuen Ibilbidea" programari euts diezaion.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko apirilaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da udako hilabeteetara zabal dezan Nafarroako Gobernuaren "Gazteluen eta Gotorlekuen Ibilbidea" programa.

Nafarroako Gobernuak "Gazteluen eta Gotorlekuen Ibilbidea" programa aurkeztu zuen urtarrilean, 1212aren eta 1512aren mendeurrenen ospakizunen karietara. Gotorlekuen ondarearen bidez Nafarroaren historia eta Foru Komunitateko hemeretzi txoko ezagutzeko aukera ematen du ibilbideak. Horretarako, Nafarroako Gobernuak ibilbide osoa seinaleztatu du, informazio-panelak jarri ditu gaztelu eta gotorleku guztietan, horietako bakoitzaren ezaugarriak eta historia azaltze aldera, eta liburuxkak eta argibide-materiala argitaratu ditu horiek sustatzeko.

"Gazteluen eta Gotorlekuen Ibilbidea" doako bisita gidatuen bidez egiten da asteburuetan, martxoaren 31tik maiatzaren 6ra bitarte, bai eta Aste Santuan ere (apirilaren 5etik 8ra), eta denetzako zabalik dago.

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak martxoaren 26an Foru Komunitateko turismoari buruz emandako azken datuek erakusten dute bidaiarien kopurua hazi egin dela 2011tik hona. Orobat hazi da atzerriko turisten gastua (ehuneko 22,1 aurreko urtearen aldean).

Uda denez turismo handieneko urte-sasoia, Foru Komunitateak bidaiariak erakartzeko eta dauden bitartekoak baliatzeko, Parlamentu-talde Popularrak ondoko erabaki proposamena aurkezten du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Udako hilabeteetan "Gazteluen eta Gotorlekuen Ibilbidea" programari euts diezaion.

2. Azter dezan bisita bakoitzeko sarrera bat kobratzeko eta bisitak astelehenetik igandera egiteko aukera.

Iruñean, 2012ko martxoaren 27an

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak errefusatzen du Nafarroako Gobernuko eta Iruñeko Udaleko arduradun politikoek Nafarroako Kutxaren fusionatzeko eta banku bihurtzeko prozesuan izan duten jokabidea, haren fundatze-printzipioak guztiz abandonatu dituztelako.

BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko apirilaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak errefusatzen baitu Nafarroako Gobernuko eta Iruñeko Udaleko arduradun politikoek Nafarroako Kutxaren fusionatzeko eta banku bihurtzeko prozesuan izan duten jokabidea, haren fundatze-printzipioak guztiz abandonatu dituztelako.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Ekonomia eta Ogasun Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko apirilaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

MOZIOAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 196. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Foru Araubideko Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Azkenean, Nafarroako Kutxa desagertu egin da, Caixabank taldearen akzioen % 1,4 edukitzera igarotzeko. Hartara, bukatu egin da banku-bihurtze eta bat-egite prozesu alderrai hau, zeinaren ondorioz Nafarroako Kutxaren fundatze-printzipioak behin betikoz abandonatu baitira eta, urtebetean, haren balioak 500 milioi euroko galera izan baitu. Izan ere, Banca Cívicaren sorrera ekarri zuen bat-egitea egin zenean, Nafarroako Kutxak 658 milioi eurotan balioetsi zuen taldeari egindako ekarpena; orain, aldiz, Nafarroako Kutxaren jabeek –Nafarroako Gobernua eta Iruñeko Udala– 150 milioi euro jasoko dituzte Nafarroako Kutxaren truke, Caixabank-en akzioetan.

Hori guztia kudeaketa negargarri eta arduragabe baten fruitu eta beste euskal entitate batzuekiko lankidetza aztertzearen aldean fobia ideologikoak lehenetsi dituzten erabaki politikoen fruitu izan da; hartara, seguruena, langile asko iraitzi eta bulegoak itxiko dira.

Azken finean, Foru Komunitate honi funtsezko finantza-tresna bat kendu diote Nafarroako Kutxako zuzendaritza organoetako arduradun politikoek, gure ekonomia-sare endogenoak –enpresa txiki eta ertainak, autonomoak eta familiak– egungo krisi ekonomikoa eta kreditu eza gainditzeko modua izateari dagokionez. Nafarroako Kutxa desagertu egin da de facto, haren gizarte-ekintzaren etorkizuna kolokan dago eta behin betikoz bukatu da finantza-jarduera gizarte helburuen mesedetan jartzeko aukera.

Horregatik guztiagatik, eta egungo egoera zuzendaritza-organoak osatu dituzten arduradun politikoek hartutako erabaki politikoen fruitu den neurrian, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen du Nafarroako Gobernuko eta Iruñeko Udaleko arduradun politikoek Nafarroako Kutxaren bat-egite eta banku-bihurtze prozesuan izan duten jokabidea, haren fundatze-printzipioak guztiz abandonatu dituztelako eta haren balio ia osoa galdu delako.

Iruñean, 2012ko martxoaren 27an

Eleduna: Bakartxo Ruiz Jaso

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez gaitzetsi eta arbuiatzen baitira iragan martxoaren 29ko greba egunean egindako txikizioak.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2012ko apirilaren 2an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

"Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi eta arbuiatu egiten ditu talde mutiri eta kontrolik gabeek iragan martxoaren 29ko greba orokorrean Nafarroan egindako ekintza bandalikoak; izan ere, kalteak eragin zituzten hiri-altzarietan, dendetan, ostalaritzan, autobusetan eta banketxeetan, eta jokabide horrekin ikaratu egin zituzten lan egiteko eskubidea askatasunez baliatu nahi izan zuten pertsonak."

Iruñean, 2012ko apirilaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez herritarren jarreraren balorazio positiboa egiten baita, modu masibo eta baketsuan egin zutelako bat greba orokorrarekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2012ko apirilaren 2an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

"Nafarroako Parlamentuak modu oso positiboan baloratzen du sindikatuek iragan martxoaren 29an deitutako greba orokorrean Nafarroako herritarrek modu masibo eta baketsuan baliatu izana greba-eskubidea."

Iruñean, 2012ko apirilaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak nabarmentzen baitu greba orokorrak jarraipen historikoa izan zuela Nafarroan.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2012ko apirilaren 2an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

"1. Nafarroako Parlamentuak nabarmentzen du greba orokorrak jarraipen historikoa izan zuela Nafarroan, eta adierazten du bere borondatea dela ukitutako erakunde guztiek gogoan har dezaten gizartearen gehiengoa lan erreformaren eta gizarte-zerbitzuetako murrizketen aurka azaldu izana.

2. Nafarroako Parlamentuak bere poza adierazten du egun horretan zehar nagusi izan zen errebindikazio eta normaltasun giroagatik, eta arbuiatu egiten du gertatutako istilu apurren manipulazio politikoa egiten dutenek istilu horiek kezko hesi gisa erabili nahi izatea, erakundeek herritarren gehiengoaren eskariei erantzun positiboa emateko duten erantzukizuna desbideratze aldera."

Iruñean, 2012ko apirilaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Gobernuaren Madrilgo Ordezkaritzaren aurrekontuari buruzkoa.

PATXI LEUZA GARCÍA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko apirilaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Leuza García jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuaren Madrilgo Ordezkaritzaren aurrekontuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2012ko apirilaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Leuza García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilari José Luis Sánchez de Muniáin jaunak kasuko Batzordean ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuko Kultura Departamentuak emandako informazioan sartzen dira Nafarroako Gobernuaren Madrilgo Ordezkaritzaren 2010eko eta 2011ko gastu xehakatuak.

Informazio horren arabera, 2010ean 161.600 euro bete ziren, eta kontusaila 237.750 eurokoa zen.

2011rako 207.000 euro jaso ziren aurrekontuan, baina 123.000 euro baino ez ziren gastatu.

Horiek horrela, hona galdera:

Aurten, austeritate-politikak eta gastuei eusteko politikak ezartzen ari diren honetan, 185.600 euro jaso dira aurrekontuan; alegia, iaz kontzeptu hori dela-eta gastatutakoa baino 60.000 euro gehiago. Zergatik?

Iruñean, 2012ko martxoaren 23an

Foru parlamentaria: Patxi Leuza García

Galdera, Nafarroako Liburutegi Nagusiko haurren ataleko jendaurreko laguntza Sedenaren bitartez azpikontratatutako kanpoko langileen bidez emateari buruzkoa.

PATXI LEUZA GARCÍA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko apirilaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Leuza García jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Liburutegi Nagusiko haurren ataleko jendaurreko laguntza Sedenaren bitartez azpikontratatutako kanpoko langileen bidez emateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2012ko apirilaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Leuza García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilari José Luis Sánchez de Muniáin jaunak kasuko Batzordean ahoz erantzun dezan:

Sedenaren bidez azpikontratatutako kanpoko langileen bidez ematen da Nafarroako Liburutegi Nagusiko haurren ataleko jendaurreko laguntza. Zergatik?

Iruñean, 2012ko martxoaren 27an

Foru parlamentaria: Patxi Leuza García

Galdera, Nafarroako Orkestra Sinfonikoarekiko hitzarmenari buruzkoa.

PATXI LEUZA GARCÍA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko apirilaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Leuza García jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Orkestra Sinfonikoarekiko hitzarmenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko apirilaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Leuza García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galderak egin ditu, Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Orkestra Sinfonikoak sinatutako hitzarmeneko 3. atalean zehazten dira bi aldeek hartutako betebeharrak. Betebehar horiei dagokienez, 2010ean eta 2011n zehar egindako ondoko ekintzen plangintzari eta betetzeari buruzko galderak egin nahi ditut.

Iruña artistikoan eginen diren 12 kontzertuen zerrenda (urtean, guztira, 24 kontzertu).

Urteko entzunaldien zerrenda (Kultura Zuzendaritza Nagusiaren eta Pablo Sarasate Fundazioaren artean hitzartu eta zehaztu beharrekoak).

Kultura Zuzendaritza Nagusiak eskatuta Nafarroako herrietan egin beharreko kontzertuak. Eskaera horiei buruzko irizpena eman beharko dute orkestrako kudeatzaileak eta zuzendari artistikoak, eta Pablo Sarasate Fundazioko Patronatuak onesten dituenean sartuko dira orkestraren jarduketen egutegian.

Nafarroako Gobernuaren erakunde-konpromisoetatik heldu diren emanaldiak, zeinak orkestraren programazioan sartuko baitira, Pablo Sarasate Fundazioak onetsiz gero.

Iruñean, 2012ko martxoaren 23an

Foru parlamentaria: Patxi Leuza García

Galdera, Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentuak kudeatzen dituen haur eskolei buruzkoa.

AITZIBER SARASOLA JACA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko apirilaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitziber Sarasola Jaca andreak aurkeztutako galdera, Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentuak kudeatzen dituen haur eskolei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko apirilaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

GALDERAREN TESTUA

Aitziber Sarasola Jaca andreak, Bildu-Nafarroa Parlamentuko Taldeko parlamentariak, Legebiltzarreko Araudiak adierazten duen bezala, ondoko galdera idatzia egiten dio Nafarroako Gobernuari.

1- Zein dira une honetan politika sozialen departamendutik kudeatzen diren haur eskolak?

2- Nola finantzatzen dira haur eskola horiek?

3- Haur eskola horiek betetzen al dute martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretua? Derrigortuak al daude betetzera?

4- Ba al dago inolako asmorik Hezkuntza Departamenduak bere egin dezan haur eskola hauen kudeaketa?

5- Zein departamenduren menpean dago pertsonala?

Iruñean, 2012ko martxoaren 26an

Foru parlamentaria: Aitziber Sarasola Jaca

Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak aintzat hartuko duen Nafarroako Parlamentuaren erabakia eta Tutera eta Iruña lotzen dituen ospitalearteko autobus-zerbitzuari eutsiko dion.

MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko apirilaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak aintzat hartuko duen Nafarroako Parlamentuaren erabakia eta Tutera eta Iruña lotzen dituen ospitalearteko autobus-zerbitzuari eutsiko dion.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko apirilaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa de Simon Caballerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Iragan martxoaren 21ean, Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztutako mozio bati eginiko in voce zuzenketa bateko ebazpeneko lehendabiziko bi puntuak onetsi zituen. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen zen gaixoen joan-etorrietarako doako osasun garraioa manten dezan. Hona bi puntuok:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du doako osasun-garraioa manten dezan, zentro tertziariora sarritan joan behar izatea eskatzen duten onkologiako tratamenduak nahiz bestelako tratamendu edo proba batzuk egite aldera Nafarroako Erriberatik Iruñeko ospitaleetara joan behar duten gaixoen joan-etorrietarako.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du Gurutze Gorriarekin batera azter dezan zer arrazoi egon diren gaixoak García Orcoyen ospitaletik Iruñeko ospitaleetara garraiatzeko zerbitzuak erabilera hain murritza izateko, ea behar bezalako publizitatea egin den eta ea gaixoek zerbitzuaren berri ote zuten."

Galdera:

Nafarroako Gobernuak aintzat hartuko al ditu erabaki horretako 1. eta 2. puntuak –8-12/MOC-00046 mozioari eginiko in voce zuzenketa–, behin Nafarroako Parlamentuak horiek onetsi ondoren? Hortaz, mantenduko al du Tuteratik Iruñerako ospitalearteko autobus zerbitzua, orain arteko baldintza beretan?

García Orcoyen ospitaletik Iruñeko ospitaleetara garraiatzeko zerbitzuak erabilera hain murritza izateko arrazoiak aztertuta (ea behar bezalako publizitatea egin den eta ea gaixoek zerbitzuaren berri ote zuten), Nafarroako Gobernuak berreskuratuko al du ospitalearteko garraioa, detektatutako beharrizanei jarraikiz?

Iruñean, 2012ko martxoaren 27an

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

Galdera, Pirinioetako Lan Batzordearen lehendakaritza daukan bitartean Nafarroako Gobernuak garatuko duen lan programari buruzkoa.

AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko apirilaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztutako galdera, Pirinioetako Lan Batzordearen lehendakaritza daukan bitartean Nafarroako Gobernuak garatuko duen lan programari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko apirilaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera egin du, Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Iragan urriaren 25etik aitzina eta hurrengo bi urteotarako, Nafarroak dauka Pirinioetako Lan Erkidegoaren lehendakaritza. Gaur arte, Nafarroako Artxibo Nagusiak erakundeko kideen goi mailako bi bilera hartu ditu (azkena, martxoaren 27an). Nafarroak lehendakaritza hartu zuenetik lehendabiziko hilabeteak igaro diren honetan, hauxe jakin nahi dut:

– Nafarroako Gobernuak zer lan-programa garatuko du Pirinioetako Lan Erkidegoaren lehendakaritza daukan bitartean?

– Zer balorazio eta zer ondorio ateratzen du Nafarroan egin diren Pirinioetako Lan Erkidegoaren lehen bilera horietatik?

Iruñean, 2012ko martxoaren 28an

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Lan-taldea, aztertzeko Nafarroan 1936ko biktimei ematen zaien arretaren egungo egoera, eta biktima horiei laguntza, ordaina, oroimena eta justizia emateko neurriak bideratzeko.

OSAERARI ETA ERATZEARI BURUZKO ARAUAK

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko apirilaren 2an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko Batzordeak, 2012ko martxoaren 28an, Erregelamenduko 55.2 artikuluan xedatuarekin bat, erabaki zuen lan-talde bat eratzea aztertzeko Nafarroan 1936ko biktimei ematen zaien arretaren egungo egoera, eta biktima horiei laguntza, ordaina, oroimena eta justizia emateko neurriak bideratzeko, eta Legebiltzarreko Mahaiari eskatu zion xedatu beharrekoa xeda zezala aipatu lan-taldearen osaerari eta funtzionamenduari buruz.

Lan-taldea eratu eta lanean has dadin, ondokoa ERABAKI DA:

1. Epe bat ematea, 2012ko apirilaren 11ko 12:00ak bitartekoa, parlamentu-talde bakoitzak aipatu lan-taldeko ordezkaria izenda dezan, Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko Batzordeko kideen artetik, Legebiltzarreko Mahaiari idazki bat zuzenduta. Idazki horren bidez orobat izendatuko da kasuan kasuko parlamentu-taldeko parlamentari bat, beharrezkoa denean ordezkari hura ordezka dezan.

2. Behin ordezkariak izendatuta, Mahaiak lan-taldea zein egunetan eratuko den erabakiko du, eta lan-taldea lanean hasiko da.

3. Lan-taldea eratzen denetik lau hilabeteko epean bukatuko da azterlana egiteko epea.

Behin txostena prestatuta, Parlamentuko Mahaiari igorriko zaio, eta hark Batzordeko kideei bidaliko die, txostena eztabaidatu eta bozkatuko den bilkuraren deialdiarekin batera.

4. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrari izateko lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketa bidez betetzekoa. Lanpostuak betekizun gisa du euskaraz jakitea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko apirilaren 2an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Onestea Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrari izateko lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketa bidez betetzeko deialdia. Lanpostuak betekizun gisa du euskaraz jakitea

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2012ko martxoaren 12an

El presidente: Alberto Catalán Higueras

Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrari izateko lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketa bidez betetzekoa. Lanpostuak betekizun gisa du euskaraz jakitea

OINARRIAK

1. oinarria. Arau orokorrak.

1.1. Deialdi honen xedea da Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrari izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzea. Lanpostuak baldintza gisa du ofizialki aitorturiko euskara titulua izatea.

1.2. Lekualdatze-lehiaketa honetan ondokoak izanen dira arau: Nafarroako Parlamentuan lanpostuak lekualdatze-lehiaketa bidez betetzeko Erregelamendua (2007ko martxoaren 7ko NPAO), 2010eko abenduaren 7ko 117. NPAOn aldatua, eta Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua, 1991ko martxoaren 21ekoa. Horien osagarri izanen dira Nafarroako Administrazio Publikoetako Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua eta hura garatu eta betearazte aldera azaroaren 6ko 215/1985 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Lanpostuak Betetzeko Erregelamendua.

1.3. Deialdi honen bidez izendatutako izangaiak Nafarroako Parlamentuko funtzionarioentzat eta, zehazki, administrarien kidegoarentzat ezarritako eginkizunak bete eta horien eskubide eta betebeharrak izanen ditu.

Eginkizun horiek, orokorrean, Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 8.3. artikuluan daude ezarrita administrarien kidegoarentzat: exekuzio-, laguntze- eta izapidetze-lanak egitea, Legebiltzarreko organoei laguntza administratiboa ematea; halaber, mekanografia- eta artxibo-lanak gauzatzea, oinarrizko kalkuluak egitea, kontabilitate-liburuak edukitzea eta antzeko beste batzuk.

Era berean, eta modu zehatzagoan, Nafarroako Parlamentuko Administrazioko Antolamenduari buruzko 1992ko azaroaren 9ko Erregelamenduak zerbitzu bakoitzari esleitzen dizkion eginkizunetatik, atxikita dauden zerbitzuari eta mailari dagozkien eginkizunak beteko ditu.

Lanpostua Zerbitzu Orokorrei atxikita dago, non, besteak beste, ondoko eginkizunak edukiko baititu:

Erregistro orokorra kudeatzea eta jendeari harrera egitea; parlamentu-kudeaketarekin zerikusia duten eginkizun administratiboak, esaterako deialdiak, gai zerrendak, lekualdatzeak, erabakien transkripzioa, aktak eta abar; kontratazioen, obren, mantentze-lanen eta langileen kudeaketaren espedienteekin zerikusia duten administrazio-eginkizunak; espediente parlamentarioak nahiz administratiboak eta Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretan sortutako gainerako dokumentazioa artxibatzearekin eta gordetzearekin zerikusia duten administrazio-eginkizunak.

Administrazio-eginkizun horiek, gehienetan, baliabide informatikoen bidez egiten dira, eta, horretarako, ofimatikako tresnak eta bestelako aplikazioak oso ongi ezagutu eta erabiltzen jakin behar da.

Halaber, beharrezkoa denetan, euskaraz egin beharreko administrari eginkizunak, edo euskaraz jakitea eskatzen dutenak, beteko ditu.

1.4. Lanpostua C mailakoa da, eta horren lansariak izanen dira maila horri dagozkionak gehi Nafarroako Parlamentuko plantilla organiko indardunean zehazten diren osagarriak.

1.5. Lanaldia goiz eta arratsaldekoa izanen da, eta Parlamentuko organo eskudunek edonoiz aldatu ahal izanen dute.

1.6. Deialdi honetako lanpostuari geroago beste zenbait gehitzen ahalko zaizkio; alegia, epaimahai kalifikatzaileak lehiakideen zerrenda,

erdietsitako puntuazioaren araberakoa, organo dei-egileari igortzen dion egunean hutsik daudenak.

2. oinarria.- Izangaien betebeharrak.

2.1. Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 26. artikuluan xedatutakoaren arabera, lanpostu huts horiek lekualdatze-lehiaketaren bidez beteko dira. Lehiaketa horretan parte hartu ahal izanen dute jardunean, zerbitzu berezietan edo eszedentzia berezian dauden Comptos Ganberako eta Nafarroako Foru Komunitateko administrazioko funtzionarioek, betiere eskaerak aurkezteko epea amaitzean honako baldintza hauek guztiak betetzen badituzte:

a) C mailako funtzionarioa izatea.

b) Goi Mailako Batxilergo, Bigarren Mailako Lanbide Heziketa edo ofizialki haien baliokide den titulu baten jabe izatea.

c) Administrari zein administrari-ofizial lanpostu baterako izendatua izana, edo antzeko lanpostu baterako, baldin eta eginkizun nagusien artean deialdi honetako 1. oinarriko 3. idatz-zatikoak baditu.

d) Honako titulu hauetakoren bat izatea: euskarazko gaitasun agiria (goi zikloa), hizkuntza eskola ofizial batek emana, EGA titulua, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak (NAPI) euskarazko 5. maila egiaztatzeko eginiko probak gainditu izanaren ziurtagiria, edo ofizialki baliokidetzat jotzen den beste titulu bat. Bestela, euskararen jakintzan 5. maila egiaztatzen duen proba bat gainditu beharko da; proba hori NAPIk eginen du, izangaien behin-behineko zerrenda argitaratu aurretik.

2.2. Lanpostu erreserbarik gabe borondatezko eszedentzian edo nahitaezko eszedentzian dauden funtzionarioek zilegi izanen dute lehiaketan parte hartzea, baldin eta deialdiak eskatzen dituen betebeharrak betetzen badituzte; horrela, berriz sartuko dira jarduneko zerbitzuan eta lanpostu bat behin betikoz esleituko zaie.

2.3. Aurreko baldintzen betetzea deialdi honen 3. oinarrian ezarritako epe eta eran frogatu beharko da. Ulertuko da baldintza horiek bete beharko direla eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunerako. Era berean, izangaiek 2. arau honen 1. atalean aipatzen diren baldintzak bete beharko dituzte lanpostu-betetzearen prozesuak irauten duen denbora guztian. Lanpostu-betetzearen prozesua izendapenaren unean bukatzen dela ulertuko da.

3. oinarria.- Eskaerak eta horiek aurkezteko epea.

3.1. Lekualdatze-lehiaketan parte hartu nahi dutenek behar den eskaera, eskabide gisa, eredu ofizialaren araberakoa (deialdi honen II. eranskinean ageri da), aurkeztu beharko dute, eta bertan ondokoak azaldu: izen-abizenak, adina, nortasun agiri nazionalaren zenbakia, helbidea eta telefonoa, izanez gero.

3.2. Honako hauek erantsi behar zaizkio eskaerari:

Eskabideak aurkezteko ezarritako epea amaitzen den egunean deialdi honen 2. oinarrian ezarritako baldintza guztiak betetzen dituztelako ziurtagiriak.

Gaitasun agiria (goi zikloa) edo aurreko 2.1. d) oinarrian adierazitako balio bereko tituluren bat, edo, bestela, izangaiak euskararen jakintzan 5. maila duela erakutsiko duen proba egin nahia adieraztea.

Alegatutako merezimenduen zerrenda ordenatua, I. eranskinean aipatzen den baremoari jarraikiz sailkatuak, eta horien egiaztagiriak, behar bezala kautotuak.

3.3. Deialdian parte hartzeko eskaerak Nafarroako Parlamentuko lehendakari jaunari zuzenduko zaizkio, eta Nafarroako Parlamentuko erregistro orokorrean aurkeztu beharko dira, edo Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako moduetakoren batean. Eskaerak aurkezteko epea hamabost egun naturalekoa izanen da, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Eskaerak aurkezteko epea luzaezina da.

4. oinarria. Izangaien onarpena.

4.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatuta, Nafarroako Parlamentuko lehendakariak onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Zerrenda horretan jasoko dira onartutako izangaien izen-deiturak.

4.2. Interesdunek egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahalko dituzte onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendaren aurka, eta, akatsik izan bada, horiek zuzendu, betiere zerrenda hori Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita bost egun naturaleko epean.

4.3. Ezarritako epean eskabiderik aurkeztu ezean, Parlamentuko Mahaiak lehiaketa hutsik gelditu dela adierazten duen ebazpena emanen du. Ebazpen hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

4.4. Erreklamazioak egiteko epea iraganik eta horiek ebatzita, Nafarroako Parlamentuko lehendakariak onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsiko du, eta Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Hautagai bakarra ere onartuko ez balitz, lehiaketa eman gabe utziko litzateke.

4.5. Bazterturiko izangairik ez badago, zuzenean onetsiko da onartuen behin betiko zerrenda, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadila aginduko da.

5. oinarria. Epaimahai kalifikatzailearen kideak, eraketa eta jarduna.

5.1. Hauek dira lehiaketa epaitu behar duen epaimahaiko kideak:

Epaimahaiburua: Javier Fortún Pérez de Ciriza jauna, Nafarroako Parlamentuko Liburutegi, Artxibo eta Dokumentazio Zerbitzuko burua.

Ordezkoa: Carlos Gil Martínez jauna, Nafarroako Parlamentuko Prentsa, Argitalpen eta Protokolo Zerbitzuko burua.

Epaimahaikidea: Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeak izendatutako kide bat.

Ordezkoa: Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeak izendatutako kide bat.

Idazkaria: Francisco del Cerro Paúl jauna, Nafarroako Parlamentuko Zerbitzu Orokorretako burua.

Ordezkoa: Silvia Doménech Alegre andrea, Nafarroako Parlamentuko legelaria.

5.2. Epaimahai kalifikatzailea eratu beharko da izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda argitara eman ondoko bost eguneko epean.

Eraketarako, kideen gehiengoak bertan egon beharko du.

5.3. Epaimahaiak jardun ahal izateko, kideen gehiengoak bertan egon beharko du.

Erabakiak botoen gehiengoaren bidez hartu beharko dira, eta epaimahaiburua kalitateko botoaz baliatu ahalko da.

5.4. Langileen Batzordeak izendatutako kideak nor diren Parlamentuko lehendakariari jakinarazi beharko zaio behin-behineko zerrenda edota, haren beharrik ez balego, behin betiko zerrenda argitaratu ondorengo bi egunetan. Izendapena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

5.5. Deialdi honen oinarriak ulertu edo aplikatzean sor daitezkeen zalantzak edo erreklamazioak, bai eta aurreikusita ez dauden kasuetan egin beharrekoa ere, epaimahaiak ebatziko ditu.

6. oinarria.- Merezimenduen kalifikazioa.

6.1. Nafarroako Parlamentuan lanpostuak lekualdatze-lehiaketa bidez betetzeko Erregelamenduko 5.1 artikuluan xedatuarekin bat, alegatu eta egiaztaturiko merezimenduak deialdi honen I. eranskinean azaldutako baremoari jarraikiz kalifikatu eta puntuatuko ditu epaimahaiak.

6.2. Merezimendu guztiak alegatu eta agiri bidez frogatu beharko dira izangai bakoitzak lekualdatze-lehiaketa honetan parte hartzeko bere eskabidea aurkezten duen unean.

Epaimahaiak azalpenak eta datu osagarriak eskatzen ahalko ditu, lehiatzaileek alegatutako merezimenduen gainean.

6.3. Epaimahaiak ez du inolaz ere kontuan hartuko alegatu ez den eta agiri bidez frogatu ez den merezimendurik, eta merezimenduen atal bakoitzean ez du emanen adierazitako gehieneko puntuazioa baino altuagorik.

6.4. Lehiakideen puntuazioetan berdinketa gertatuz gero, administrazio publikoei zerbitzuak ematen antzinatasun handiena dutenen aldeko erabakia hartuko da. Hori eginagatik ere, berdinketak hautsi gabe jarraitzen badu, adinez zaharrena den lehiakidearen alde ebatziko da.

6.5. Merezimenduak kalifikatu ondoren, epaimahaiak partaideek lorturiko puntuazioak paratuko ditu Nafarroako Parlamentuko iragarki oholean, eta bost eguneko epea irekiko du interesdunek beren eskubidearen mesedetan balorazio horri buruz komeni zaiena alega dezaten. Iragarpen horretan jakinaraziko da, era berean, proba praktikoa non, zer egunetan eta zer ordutan eginen den.

7. oinarria. Proba praktikoa, lanpostuaren eduki eta eginkizunei eta Nafarroako Parlamentuaren gaineko ezagutzari buruzkoa.

Bi ariketa egin beharko dira, idatziz; bi ordu izanen dira, gehienez ere, ariketa bakoitza egiteko. Ariketa bakoitzeko hamar puntu lortu ahalko dira, eta proban, guztira, hogei puntu lortu ahalko dira gehienez.

Lehenbiziko ariketan, zenbait galderaren bidez, honakoen ezagutza baloratuko da: Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoa, Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen Legea, Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua eta Nafarroako Parlamentuko administrazioko antolamenduari buruzko Erregelamendua.

Bigarren ariketa proba praktiko bat izanen da, Nafarroako Parlamentuan administrari lanean ohikoa den informatikaren inguruko ezagutzei buruzkoa: hardwarea, softwarea (Word, Access eta Excel) eta Windows sistema eragilea, bai eta Internet (Explorer) eta posta elektronikoa ere (Outlook).

Proba hori baztertzailea izanen da eta, bi ariketak kontuan hartuta, 10 puntu lortu beharko dira, gutxienez, gainditzeko.

Proba gainditzen duten izangaiek lortutako puntuazioa 6. oinarriaren arabera lortutakoari gehituko zaio, puntuazio osoa zehazteko.

8. oinarria.- Izangaien zerrenda ordenatua eta lanpostuaren esleipena.

9.1. Epaimahaiak izangai guztien kalifikazioa emanen du eta izangaien zerrenda igorriko dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, erdietsitako puntuazioaren arabera ordenatuta. Mahaiak, hala behar izanez gero, hasieran deitutako lanpostuen kopurua handitzeko behar den erabakia hartuko du. Halaber, Mahaiak zerrenda hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadila aginduko du.

9.2. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak puntuaziorik handiena lortu duen izangaiari esleituko dio lanpostua, eta haren izendapena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin aginduko du.

9. oinarria. Lanpostuak hartzea.

10.1. Izendaturiko izangaiak lanpostuaren jabetza hartu beharko du izendapenari buruzko erabakia jakinarazten zaion egunaren ondorengo hamar egun naturaleko epearen barruan.

10.2. Aski justifikaturiko ezinbesteko kasuetan salbu, aipaturiko epean jabetza hartzen ez duen lehiakideak lehiaketaren jardunetatik sortutako eskubideei uko egiten diela ulertuko da eta, hala izanik, lanpostua beteko da aurreko oinarrian adieraziriko zerrendan hurrengo den izangaiarekin.

10. oinarria. Agiriak berreskuratzea.

11.1. Izangaiek aurkeztu dituzten agiriak berreskuratzen ahalko dituzte, halaxe eskatu ondotik, baldin eta erreklamazio edo errekurtsorik jartzen ez bada. Hiru hilabeteko epea izanen da agiriak berreskuratzeko eskaera aurkezteko; aurretik, ordea, beste hiru hilabete utzi beharko dira pasatzen, izendapena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik.

11.2. Aurreko atalean adieraziriko epea bukatzen bada agiriak itzultzeko eskatu gabe, ulertuko da izangaiak uko egin diola agiriak berreskuratzeari, eta horretarako eskubidea galduko du eta agiriak suntsitu eginen dira.

11.3. Erreklamazio edo errekurtsoren bat aurkezten baldin bada, aurkeztutako agiriak gorde eginen dira, ikuskatu eta aztertzeko. Agiriak berreskuratzen ahalko dira erreklamazioaren edo errekurtsoaren tramitazioak horretarako aukera ematen duenean.

11. oinarria. Errekurtsoak.

Deialdi honen, deialdi honetako oinarrien, izendapen-erabakiaren eta Nafarroako Parlamentuko Mahaiak deialdi hau dela-eta hartzen dituen gainerako erabakien aurka ondoko errekurtsoetako bat aurkez daiteke:

a) Aukerako berraztertze-errekurtsoa, Legebiltzarreko Mahaiari zuzendua, hilabeteko epean, egintza edo erabakia jakinarazi edo argitara eman eta biharamunetik kontatzen hasita.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, bi hilabeteko epean, erabakia argitara eman edo jakinarazi eta biharamunetik kontatzen hasita.

Parlamentuko lehendakariak edo epaimahai kalifikatzaileak deialdi hau aplikatzeko gauzatzen dituzten gainerako egintzen aurka, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahalko da hilabeteko epean, Nafarroako Parlamentuko Mahaiari zuzendua, egintza edo erabakia argitara eman edo jakinarazi eta, biharamunetik kontatzen hasita.

I. ERANSKINA
Merezimenduak baloratzeko baremoa

a) Administrazio publikoetan emandako zerbitzuak:

Administrazio publikoetan emandako zerbitzuen balorazioa eginen da deialdia argitaratzen den egunean izangaiak onarturik duen antzinatasunaren arabera, urte bakoitzeko puntu bat emanez.

– Oharrak:

Lehena. Urteen kopurua osoa ez bada, zerbitzuan egindako aldiari proportzionalki dagokion puntuazioa emanen zaie izangaiei.

Bigarrena. a) letra honi dagokion puntuazioa gehienez ere 25 puntukoa izanen da.

Hirugarrena. Lanaldi partzialean emandako zerbitzuen kasuan, horren araberako puntu kopurua kenduko da.

Laugarrena. Deialdiaren argitaratze-egunaren ondoren emandako zerbitzuak ez dira baloratuko.

Bosgarrena. Funtzionarioa zerbitzu berezietan edo eszedentzia berezian egon den aldietako zerbitzuak, edo unitate organiko bateko buru edo zuzendari lanetan aritu den aldietakoak, egoera horietan sartzean zuen lanpostuan eman izan balitu bezala kontatuko dira.

b) Prestakuntza, irakaskuntza eta ikerketa.

1) Erakunde edo zentro publikoek eta unibertsitateek antolaturiko prestakuntza ekintzetan parte hartu izana: 0,10 puntu, kreditu akademiko edo horren baliokide bakoitzeko (10 ikastordu), gehienez ere 7 puntu eskuratu arte.

– Oharrak:

Lehena. Baloratu beharreko ikastaroen ikastordu zatikiak hainbanatuko dira.

Bigarrena. Ikastorduen kopurua agertzen ez duten ziurtagiriak kreditu batekoak izanen balira bezala baloratuko dira.

Hirugarrena. Ikasturte bateko iraupena agertzen duten ziurtagiriak 12 kreditukoak balira bezala baloratuko dira.

Laugarrena. Erakunde antolatzaileari buruzko betebeharrak betetzen ez badituzte ere, administrazioak agindurik edo hark baliozkoturik eginak diren prestakuntza ekitaldietan parte hartzea puntuazio berarekin puntuatuko da. Horien artean, espresuki, sindikatuek administrazio publikoetako Etengabeko Prestakuntzarako Itunen barruan antolatuak sartuko dira.

Bosgarrena. Atal honetan ez dira baloratuko ikasketa-titulu bat, unibertsitatekoa nahiz unibertsitatez kanpokoa, lortzeko ikasketak.

2) Kongresu edo jardunaldietan ponentziak edo komunikazioak aurkeztu izana, beka jasotako edo sarituriko zientzia edo ikerketa lanak egin izana, eta aldizkari espezializatuetan lanak argitaratu izana, bai eta argitaratutako itzulpenak ere: gehienez ere lau puntu, epaimahai kalifikatzaileak balioetsi beharrekoak, kontuan hartuz lana edo jarduera bakarka edo taldean egina den eta biltzarrak edo argitalpenak udal, eskualde, nazio edo nazioarteko maila duen.

3) Sektore publikoan prestakuntza ekintzak antolatu edo/eta horietan irakasle gisa parte hartu izana: gehienez ere, 4 puntu. Epaimahai kalifikatzaileak baloratuko du, horien iraupenaren arabera.

– Oharrak, b) letra osoari buruzkoak:

Lehena. Idatz-zati honetan aintzat hartuko dira, soilik, deialdiko lanpostuaren eginkizunekin zerikusia duten merezimenduak.

Bigarrena. Letra honi dagokion puntuazioa gehienez ere 15 puntukoa izanen da.

c) Epaimahaiak baloratuko dituen bestelako merezimenduak: 5 puntu gehienez ere.

1. Deialdian eskaturiko titulazioaz bestelako goi mailako tituluak: 1 puntu, gehienez.

2. Deialdian eskaturiko titulazioaz bestelako erdi mailako tituluak: 0,50 puntu, gehienez.

3. Doktore gradua: 1 puntu, gehienez.

4. Beste hizkuntza batzuk jakitea: 1 puntu, hizkuntza bakoitzeko.

Oharrak c) letrari buruz:

Lehena. Hizkuntzen jakite-maila hizkuntza eskola ofizial bateko ziurtagiriarekin egiaztatu beharko da, edo entitate publiko baimendu batek luzatutako ziurtagiriarekin, non titulazioa edo lortutako maila agertu beharko baita.

Bigarrena. Gainditutako hizkuntza maila osoen kasuan edo titulazio ofizialik lortzeko adinakoak ez diren unibertsitate-ikasketen kasuan, epaimahaiak erabaki dezake kasuko titulazioari eman beharreko puntuazioaren araberako puntuazio proportzionala ematea.

II. ERANSKINA
Deialdia parte hartzeko eskaera

Izen-deiturak: .....
NAN zenbakia: ..... 19...(e)ko .....aren .....(e)an (adinez nagusia), ...n jaioa, (.....), helbidea (kalea, zenbakia, solairua eta posta kodea): ....., telefono zenbakiak (finkoa eta mugikorra): .....,....., adeitasunez,

AZALTZEN DUT

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 20....ko .....aren ....(e)an hartutako erabakiaren berri izan dut; haren bidez, administrari lanpostu huts bat betetzeko lekualdatze lehiaketarako dei egin da. Lanpostuak betekizun gisa du euskaraz jakitea.

Deialdiko 2. oinarrian eskatzen diren betebehar guztiak betetzen ditut eskaerak aurkezteko epea bukatzen den unean.

Euskarazko hizkuntza-nahikotasuna frogatzeko proba egitea eskatzen dut, deialdian ezarritako ondorioetarako. (Euskaraz badakitela eskatzen den titulazioaz frogatu ezin dutenentzat soilik).

Horrenbestez,

ESKATZEN DUT:

Eskabide honetan aipatzen den deialdian onartua izatea. Deialdian eskatutako agiriak eta alegatzen ditudan merezimenduen frogagiriak gaineratu ditut.

Iruñean, 2012ko .....aren .....(e)an

NAFARROAKO PARLAMENTUKO LEHENDAKARIARI

Deialdia, Nafarroako Comptos Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu huts bat, barneko igoera txanda murriztuan, oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa.

Behin betiko izendapena

Nafarroako Comptos Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu huts bat, barneko igoera txanda murriztuan, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia onetsi zuen Lehendakariak 2009ko abuztuaren 20ko erabaki baten bidez, eta 2009ko irailaren 23ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Deialdiako 9. oinarriko 1. idatz-zatiak ondokoa xedatzen du: "Proposaturik eta behin-behinekoz izendaturik dagoen izangaiak urtebeteko praktikaldia gainditu beharko du auditore izateko behin betiko izendapena lortu aurretik". Halaber, 10. oinarriko 1. idatz-zatiak ondokoa ezartzen du: "praktikaldia bukaturik, izangaiak 'gai' kalifikazioa lortuz gero, Comptos Ganberako Lehendakariak behin betikoz izendatuko du funtzionario. Izendapen hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da".

Aurrekoarekin bat, 2011ko apirilaren 1ean hasitako praktikaldia bukatuta eta Karen Moreno Orduña auditore andrearen aprobetxamenduari buruz Ganberako kideek duten iritzia entzun ondoren, hona Lehendakariaren

ERABAKIA:

Lehena. Karen Moreno Orduña andreari praktikaldia burutu ondoren "gai" kalifikazioa ematea.

Bigarrena. Karen Moreno Orduña andrea Nafarroako Comptos Ganberako funtzionario izendatzea, behin betikoz, auditore mailarekin.

Hirugarrena. Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea. Izendapen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hilabeteko epean hartu beharko du izangaiak lanpostuaren jabetza.

Laugarrena. Erabaki hau jakinaraztea interesdunari, Comptos Ganberako Idazkari Nagusiari, Langileen Batzordeari, Administratzaileari eta Kontu-hartzaileari, bere ondorioak sor ditzan.

Iruñean, 2011ko apirilaren 3an

Comptos Ganberako Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

Lege Gordailua: NA – 363-1995